

tzen duena, aurre daukagu. Euskaltzain jaun guziok garesti deritzagu ta alde bat utzi da.

Bilboko *Editorial Vasca* lan ortarako egokia litzaziguke ta onen lanaren sari ta akiakuluak zeazkiro begiratzeko, urango batzar baterako utzi da.

2.^a Azkue jaunak aurreko batzaraldian bere lan batez itz egin zigun. Oraingo batzaraldi onetan oren *itz-aurrea* irakuri digu. Lan oren izen burua auxe du: EUSKALERIAREN YAKINGAIK.

3.^a Iztegi beñirako beste itz sala aundi bat: *pasive premisa, reembolso, relativo* ta abari dagozkionak.

4.^a Alegin guziak egin bear dira *euskera* zabaldu ta eusteko Arabako Biñarealen. Badirudi, ango norbait eragozpen zaigula.

5.^a Ormaetxea jaunak, erian bildutako esakun batzuek irakuri dizkigu, ta beste gairik izan ez da ototzez amaitu da batzaraldia.

Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Epailaren 30'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

1.^a Azkue jaunak Etxegarai jaunaren eskutitz bat irakuri digu.

2.^a Iztegi beñiaren gertupenetan ekin degu: nola egin bear ote dan arpidedunen xerenda: nola iragari egunarietan eta abar...

3.^a Azkue jaunak esan digu: Bilboko etxea gutxitxo ote degun, ta beste bizitza zabalago bai artzea egoki litzakela. Ontarako baduela 7.000 peseta nork eman, eta oiek iritxiko balitu, egingo dala bere asmoa

ta baita ere Juan Gorostiaga jauna gure lankidetzat aukeratu sarien bidez. Urkijo jaunak oarpi-de batzuk ipiñi dizkio.

4.^a Azkue jaunak bere lan eder bat irakurri digu: APÉNDICE DE LA MORFOLOGÍA — CONJUGACIÓN GIPUZKOANA.

5.^a Ormaetxea jaunak Ataungo Bikario edo Efe-tore izandako baten itzaldi batzuek (10 omili) aztertu ditu: 1852'gañen urtean, ta dirudinez, Juan Antonio Garmendiarenak dira.

6.^a Altube jaunak Izendegia dala-ta, bere lan egoki bat irakurri digu: *El Santoral Vasco*. Erdia irakurri duenean luze izango dala-ta biarko utzi degu beste erdia.

7.^a Iztegi beñirako itz beñi edo *neologismos* sortzen jardun degu ta beste gai batzuek bigaramonera-ko utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Epailaren 31'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe, Elissalde, urgazletatik Ormaetxea eta Lekuona jaunak.

Otoitz egin da.

1.^a Altube jaunak, aurfeko batzarañean utzitako bere lan ederañen erdia irakurri digu: *El Santoral Vasco*. Lan onen ondorekotzat garbi azaldu ditu Altube jaunak. Denak ederañtsi al lezazkike Euskaltzaindiak? Bayetz dio Altubek, geienak beñepein, izen-jartze arazo ontan, gurasoena bai-da eskubide guzia.

2.^a Bikario jeneralaren idazki bat irakurri da. Oñetzaz Altube jaunak dasa: Gotzai jaunari eskatu bear zaiola, aur euskaldunai euskeraz erakusteko eskubide-a, batere galdefu gabe zein izkuntzetan nai duten.